

# Garapena eta azpigarapena

Ane Zubiaurre

Egitura Ekonomikoa irakasgaia (Eduardo Malagon) jarraitzeko moldatua

Gizapedia



## Garapena zer den

Garapenak bi dimentsio dituen fenomeno sozioekonomikoa da:

- dimentsio ekonomikoa: hazkunde ekonomikoa (BPG handitu) eta aurrerapen ekonomikoa (produktibitatea, teknologia, berrikuntza);
- dimentsio soziala: aurrerapen soziala (osasun eta hezkuntza zerbitzu zabal eta aurreratuak, bizitza-itxaropena), ongizatea, bizitza-kalitatea, gizarte desberdintasun ez oso nabarmenak.

## Garapenaren esparrua

- garapena maila makrogeografikoan gertatzen den fenomeno da: ez da tokiko fenomenoa, ez da herri mailan gertatzen, eskualde eta nazio mailan baizik;
- horregatik entzuten dugu beti herrialde, nazio edo eskualde garatuak, baino ez auzo edo udalerrri garatuak;
- horren arrazoia: garapen ekonomikoa **ehundura produktibo** eta instituzional zabal baten emaitza da, espazio geografiko zabal batean gertatzen dena.

## Azpigarapena

- ez da soilik garapen-eza;
- egitura estrukturala baizik, sistema kapitalista desegoki baten ondorioa;
- izan ere, azpigarapenaren efektuak herrialde baten atzerapen eta mendekotasun ekonomiko, sozial eta politikoa dira;
- baina aldi berean atzerapen horien ondorioa da;
- beraz **sorgin gurpil** amaigabea da, herrialde edo eskualde osoa azpigarapenaren zuloan atxikitzen duena. Pobreziaren eta azpigarapenaren zirkulu gaiztoa da.

## Azpigarapenaren zirkulu gaiztoak

- Zirkulu gaizto demografikoa: jaiotza tasa altuak, gainpopulazioa eta pobrezia dakartza, **jaiotza kontrola** eragotzi, eta horrek jaiotza tasa altuak dakartza berriz ere.
- Zirkulu gaizto ekonomikoa: soldata txikiek **produktibitate** txikia dakarte, eta produktibitate txikiak soldatak ezin igotzea dakar.
- Zirkulu gaizto kulturala: trebakuntza eskasak azpigarapena dakar, eta horrek trebakuntzarako baliabide eskasak izatea dakar beste behin ere.